

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### INGURUGIRO GAJETARAKO IKASTEGIA

#### **Pertsona fisikoei Urarteko (Abetxuku) hiri-baratzeetako lursailak erabiltzeko baimena emateko deialdi publikoaren oinarriak. 2025eko deialdia**

2024ko abenduaren 13ko Vitoria-Gasteizko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrean pertsona fisikoei Urarteko (Abetxuku) hiri-baratzeetako lursailak erabiltzeko baimena emateko deialdi publikoaren oinarriak. 2025eko deialdia onartu zen.

Natura hirian bertakotzeko oinarrizko elementu dira hiri-baratzeak, baita pixkanaka autoekoizpen-estrategiak eta iraunkortasunaren inguruko sentsibilizazioa garatzen joateko ere. Mota horretako ekimenei esker da posible neurri handi batean gure gizartean oinarrizko kontzeptuak zabaltzea, besteak beste, elikadura-burujabetza, tokiko produktuak, elikadura osasungarria eta osasunerako hezkuntza.

Ekimen horien artean leku nabarmena hartzen dute Abetxukuko hiri-baratzeek, zeinek partikularrek aldi batez erabiltzeko 225 lursail biltzen baitituzte.

Vitoria-Gasteizko Udalaren hiri-baratzeen erabilera arautzeko ordenantza oinarritzat harturik, Vitoria-Gasteizko Udalak —Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren bitartez— deialdi publiko hau egiten du, Urarteko (Abetxuku) aisialdiko hiri-baratzeetako lursailak erabiltzeko baimenak emateko. Oinarri hauek arautuko dute deialdia:

#### **Lehena. Deialdiaren xedea**

Vitoria-Gasteizko Udalak hala eskatzen duten —eta deialdian bertan nahiz Vitoria-Gasteizko Udalaren hiri-baratzeen erabilera arautzeko ordenantzan galdatzen diren betebeharrak betetzen dituzten— pertsona fisikoei Abetxukuko Urarteko hiri-baratzeetako lursailak baliatzeko baimenak ematea du xede deialdi honek.

#### **Bigarrena. Deialdi honetan sartzen diren lursailak**

Vitoria-Gasteizko Udalaren jabetzako honako lursail hauek —jabetza publikoko ondasunak— sartzen dira: Urarteko hiri-baratzeetan 2025eko urtarrilean libre dauden lursailak, pertsona fisikoek baliatzeko direnak.

#### **Hirugarrena. Lursail bat erabiltzeko baimenaren onuradun izateko betekizunak**

— Adinduna izatea, eta Vitoria-Gasteizko auzotarra, hots, biztanleen udal-errolan izena emanda egotea.

— Baratzeetako lursailak erabiltzeko baimenak emateko deialdian parte hartzea.

— Udal-baratzea erabiltzeko baimena indarrean jarri aurretik udalak antolatutako baratze-zaintza ekologikoari buruzko arauzko ikastaroa egin izana. Udal-lursail bat erabiltzeko baimena ematen zaienek, baldin eta udalak antolatutako baratze-zaintza ekologikoari buruzko arauzko ikastaroa egin ez badute azken hamar urteetan, urte honetan zehar egin beharko dute, lursaila erabili ahal izatekotan. Horretarako, behar diren ikastaroak antolatuko ditu udalak.

– Deialdia argitaratu baino bi urte lehenago udal-lursail bat erabiltzeko baimenik ez eduki izana, Vitoria-Gasteizko hiri-baratzeen erabilera arautzeko udal ordenantzaren 10.3 artikuluko hirugarren paragrafoan ezarritakoa gorabehera.

– Udalari ordaindu beharreko zergak ordainduta edukitzea.

#### **Laugarrena. Lursailak erabiltzeko baimena eskuratzeko debekuak**

Aurreko artikuluan adierazitako baldintza guztiak bete arren, ez zaie baratzerik erabiltzeko aukerarik emango egoera hauetakoren batean egokitzen direnei:

a) Udalaren hiri-baratzeetan beste lursail baten adjudikaziodun izatea.

b) Udal-lursail bat erabiltzeko baimena baliogabetu izana, azken bost urteetan.

#### **Bosgarrena. Eskabideak, behar diren agiriak eta aurkezteko legua**

San Martineko udal bulego teknikoetan aurkeztu beharko dute eskabidea interesdunek, edo herritarrei laguntzeko udal bulegoetakoren batean, bertan eskuratu ahal izango duten eredu normalizatua baliatuz.

Agiri hauek erantsi beharko dizkiete eskabideei:

– Nortasun-agiriaren edo legez ordeztan duen agiriaren fotokopia.

– Erantzukizunpeko adierazpena — 1. eranskinari jarraiki —, non adierazten den interesduna ez dagoela deialdi honetako betebeharrak eta debekuen ataletan adierazten diren debeku-egoeretako batean ere, ezta Vitoria-Gasteizko Udalaren hiri-baratzeen erabilera arautzeko ordenantzan adierazten den inongo debeku-egoeratan ere.

Argibide gehiago: 010 eta 945 162696 telefonoetan nahiz [www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org) helbidean.

#### **Seigarrena. Eskabideak aurkezteko epea**

Eskabideak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izango da, deialdi hau udalaren web orrian argitaratzen denetik.

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak izapidetuko ditu eskabideak.

Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratuko da udalaren webgunean eta iragarki-taulan, baztertzeko arrazoiak adierazten direlarik.

Ondoren, 15 egun baliouduneko epea zabalduko da, erreklamazioak aurkezteko eta agirietako akatsak zuzentzeko.

Erreklamazioak ebatzi ondoren, onartutako eskabideen behin betiko zerrenda argitaratuko da, eta zozkatuko diren lursailen zerrenda.

Zozketarako zenbakiak agertuko dira zerrendan, eta zozketaren eguna eta ordua adieraziko.

#### **Zazpigarrena. Baimena ematea**

Udalaren hiri-baratzeak erabiltzeko baimenak eskabidea egiten duten pertsona fisikoen alde emango dira, erabilgarri dauden lursailak onartzen diren eskabideen artean zozkatuz.

Zozketaren emaitza akta batean jasoko da, eta udalaren iragarki-taulan eta webgunean argitaratu emango, kontsultatzerik izan dadin.

Zozketa egin ondoren, zein lursail erabil beharko duten jakinaraziko zaie halakoren bat erabiltzeko baimena egokitu zaienei, udalak antolatutako ikastaroa egina badute. Lursailen bat erabiltzeko baimena egokitu arren udalak antolatutako baratz zaintza ekologikoari buruzko arauzko ikastaroa oraindik egin ez dutenei, ikastaroa egiteko eta lursaila erabili ahal izateko baldintzen inguruko informazioa emango zaie. Ikastaroa bukatu ondoren, zein lursail erabiltzea egokitu zaien jakinaraziko zaie.

Udalaren hiri-baratzeak erabiltzeko baimenak ematen direneko administrazio-ebazpenak Administrazio Publikoen Ondarearen azaroaren 3ko 33/2003 Legean adierazten direnak jaso beharko ditu. Hiri eredu, Hirigintza, Etxebizitza, Garbiketa eta Ingurumenaren Saileko zinegotzi ordezkariak emango du, eta agortu egingo du administrazio-bidea. Ebazpen horren kontra aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, edo, behar izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.

#### **Zortzigarrena. Erabiltzeko baimenaren iraupena**

Gehienez ere lau urteko indarraldia izango dute baimenek, eta ezingo da epe hori luzatu, Administrazio Publikoen Ondarearen azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 92.4 artikuluan arautzen diren baliogabetze-kasuak eta Vitoria-Gasteizko Udalaren hiri-baratzeen erabilera arautzeko ordenantzan xedatutakoa gorabehera.

#### **Bederatzigarrena. Tasak ordaintzea**

Udal lursailak erabiltzeko baimena ematen delarik, jabetza publikoko ondasunak okupatzeari dagokion tasa ordaindu beharko da, dagokion ordenantza fiskalean arautzen denaren arabera.

#### **Hamargarrena. Araudi aplikagarria**

Oinarri honetan aurreikusi gabekoetan, honako hauek hartuko dira kontuan: Vitoria-Gasteizko Udalaren hiri-baratzeen erabilera arautzeko ordenantza, Administrazio Publikoen Ondarearen azaroaren 3ko 33/2003 Legea, Toki Erakundeen Ondasunen Araudia onartu zeneko ekainaren 13ko 1372/86 Errege Dekretua, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea edo horiek ordeztzen dituzten arauak eta aplikatzeak diren gainerakoak.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko abenduaren 13an

*Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren lehendakaria*  
**BORJA RODRIGUEZ RAMAJO**



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

Aisialdiko hiri-baratzeetako lursailak baliatzeko baimena  
**II. Eranskina: Erantzukizunpeko aitortpena**  
Autorización de uso de parcelas en los huertos municipales de ocio  
Anexo II: Declaración responsable

Lurraldearen eta Klimaren Aldeko Ekintzaren Saila  
Departamento de Territorio y Acción por el Clima

Ingurugiro Galetarako Ikastegia (IGI - CEA)  
Centro de Estudios Ambientales CEA

Tfnoa - Tf. 945 16 16 16 (luz. - ext. 4963)  
informacion@vitoria-gasteiz.org

HUOC\_001

#### ESKATZAILEAREN DATUAK – DATOS DE LA PERSONA SOLICITANTE

1. abizena Apellido 1		2. abizena Apellido 2	
Izena Nombre		NAN/AIZ DNI/NIE	

#### ADMINISTRAZIOAREN AURREKO ORDEZKARIA – PERSONA REPRESENTANTE ANTE LA ADMINISTRACIÓN

##### IZEN-DEITURAK – NOMBRE Y APELLIDOS

1. abizena Apellido 1		2. abizena Apellido 2	
Izena Nombre		NAN/AIZ DNI/NIE	

#### JAKINARAZPENETARAKO DATUAK - DATOS PARA ENVÍO DE NOTIFICACIONES

Eskatzailea – Persona solicitante

Ordezkarria – Persona representante

Kalea Calle		Zenbakia Número	Eskailera Escalera
Solairua Piso	Atea Mano	Posta-kodea Cód. Postal	Herria Población
Udalerría Municipio		Lurraldea Provincia	
1. Telefona Teléfono 1	2. Telefona Teléfono 2	Posta elektronikoa Correo Electrónico	

#### BERE ERANTZUKIZUNPEAN AITORTZEN DU – DECLARA BAJO SU RESPONSABILIDAD

➤ Gasteizko Udalaren hiri-baratzeen erabilera arautzeko ordenantza ezagutzen eta onartzen duela eta ez dagoela deialdian nahiz Gasteizko Udalaren hiri-baratzeen erabilera arautzeko ordenantza adierazten den inongo debeku-egoeratan.  
*Que conoce y asume la Ordenanza municipal de uso de los huertos urbanos municipales de Vitoria-Gasteiz y que no incurre en las causas de exclusión de esta convocatoria, citadas en el texto de la misma y en la Ordenanza municipal de uso de los huertos urbanos municipales de Vitoria-Gasteiz.*

#### DATA ETA SINADURA - FECHA Y FIRMA (\*)

Gasteizen, -(e)ko (a)ren (e)an

En Vitoria-Gasteiz, a de de

Eskatzailearen izenpea – Firma de la persona solicitante

(\*)

Eskabidea sinatu aurretik, irakur ezazu datuen babesari buruzko informazioa dagoen hurrengo orrialdean.

*Antes de firmar la solicitud, debe leer la información básica sobre protección de datos que se presenta en la página siguiente.*

Erantzukizunpeko aitortpenean eman beharreko datu guztiak ez emateak edo datuen bat nahiz erantsen diren adierazpen edo agirietakoren bat okerra edo faltsua izateak, edo administrazio eskumendunaren aurrean erantzukizunpeko aitortpena osorik beteta edo agiri osagarriak ez aurkezteak dena delako eskubideaz edo jardueraz baliatzen jarraitzeko ezintasuna ekarriko du berekin, gertaera horien berri ziurra dagoen unetik bertatik, eska daitezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak gorabehera.

*La inexactitud, falsedad u omisión, de carácter esencial, en cualquier dato, manifestación o documento que se acompañe o incorpore a una declaración responsable, o la no presentación ante la Administración competente de la declaración responsable completamente rellena o de la documentación complementaria, determinará la imposibilidad de continuar con el ejercicio del derecho o actividad afectada desde el momento en que se tenga constancia de tales hechos, sin perjuicio de las responsabilidades penales, civiles o administrativas a que hubiera lugar.*



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

**Aisialdiko hiri-baratzeetako lursailak baliatzeko baimena**  
**II. Eranskina: Erantzukizunpeko aitortpena**  
Autorización de uso de parcelas en los huertos municipales de ocio  
Anexo II: Declaración responsable

Lurraldearen eta Klimaren Aldeko Ekintzaren Saila  
Departamento de Territorio y Acción por el Clima

Ingurugiro Galetarako Ikastegia (IGI - CEA)  
Centro de Estudios Ambientales CEA

Tfnoa - Tf. 945 16 16 16 (luz. - ext. 4963)  
informacion@vitoria-gasteiz.org

HUOC\_001

**DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA**  
**INFORMACIÓN SOBRE EL TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES**

Tratamenduaren arduraduna <i>Responsable del tratamiento</i>	Vitoria-Gasteizko Udala - Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (IFK- CIF: P0106800F)
Tratamenduaren arduradunaren kontaktu datuak <i>Contacto del Responsable del tratamiento</i>	Calle Pintor Teodoro Dublang kalea, 25 01008 Vitoria-Gasteiz, Álava 945 161 616 - <a href="mailto:informacion@vitoria-gasteiz.org">informacion@vitoria-gasteiz.org</a> - <a href="http://www.vitoria-gasteiz.org">www.vitoria-gasteiz.org</a>
Datuak Babesteko Ordezkararen kontaktu datuak <i>Contacto de la Delegada de Protección de Datos</i>	<a href="mailto:dbo-dpd@vitoria-gasteiz.org">dbo-dpd@vitoria-gasteiz.org</a>
Tratamenduaren xedeak <i>Finalidad del tratamiento</i>	Udal zerbitzuei dagokienez herritarren eskakizunak artatzea, eta udal-eskumeneko prozedurak izapidetzea, 39/2015 legean aurreikusitakoarekin bat etorrira.  <i>Atender las solicitudes de la ciudadanía en relación con los distintos servicios municipales, así como la tramitación de los distintos procedimientos de competencia municipal, de acuerdo con lo previsto en la ley 39/2015.</i>
Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa <i>Legitimación o base jurídica del tratamiento</i>	39/2015 Legearen 21.1 artikulua: Administrazioa behartua dago ebazpen espresua eman eta jakinaraztera prozedura guztietan, edozein dela ere prozedura hasteko modua.  DBAOko 6.1.c) artikulua: Tratamendua beharrezkoa da tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion lege-eginbeharra betetzeko.  <i>Artículo 21.1 Ley 39/2015: La Administración está obligada a dictar resolución expresa y a notificarla en todos los procedimientos cualquiera que sea su forma de iniciación.</i>  <i>Artículo 6.1.c) RGPD: El tratamiento es necesario para el cumplimiento de una obligación legal aplicable al responsable del tratamiento.</i>
Hartzaileak <i>Destinatarios</i>	Datuak hirugarren bati komunika dakizkioke –soil-soilik Gasteizko Udalaren eta datu-hartzailearen eginkizun legitimoekin zuzeneko lotura duten xedeak betetzeko–, baita legeak datuak komunikatu beharra agintzen duen erakunde eta organoei ere.  <i>Los datos podrán ser cedidos a terceras entidades para el cumplimiento de fines directamente relacionados con funciones legítimas del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y de la entidad cesionaria, así como a las entidades u organismos a los que exista obligación legal de realizar comunicaciones de datos.</i>
Gordetzeko epea <i>Plazo de conservación</i>	Datuak gorde egingo dira, jaso ziren xederako eta/edo xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litekeen erantzukizun oro preskribatzeko lege ezarritako epeak iraungi bitartean. Horrez gain, gorde egingo dira baita pertsona interesatuarekin izandako harremanetik eratorri litezkeen erreklamazioak egiteko edo horietatik babesteko aurreikusitako epeak iraun bitartean. Orobat, artxibategi eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko zaie datuei.  <i>Los datos se conservarán el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para la que se recabaron y/o durante los plazos legales previstos para la prescripción de cualquier responsabilidad que se pudiera derivar de dicha finalidad y del tratamiento de los mismos. Igualmente, se conservarán durante los plazos previstos para el ejercicio o la defensa de reclamaciones derivadas de la relación mantenida con la persona interesada. Asimismo, les será de aplicación lo dispuesto en la normativa de archivos y documentación.</i>
Pertsonen eskubideak <i>Derechos de las personas</i>	Datuak babesteko delegatuaren bitartez, pertsona interesatuak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ezeztatzeko eskatu, horien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko eskatu.  <i>Las personas interesadas pueden acceder a sus datos, solicitar su rectificación o, en su caso, supresión, oposición o limitación de tratamiento, a través de la Delegada de Protección de Datos.</i>